



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 21a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00007. Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailaren 19an taxututako irizpenak defenda ditzan. Geroa Bai, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

—11-24/MOC-00143. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duen estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba. Mozioa erretiratzea (4. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00007. Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2024ko ekainaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Foru-lege proiektuari dagokionez, Kontuen Ganberak txosten bat egin du, 2024ko abenduaren 30eko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 178. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduran izapidetu dadin xedatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorraren formula-zioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru-lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 178. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorraren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-25/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi
horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailearen 19an taxututako irizpe-
nak defenda ditzan**

GEROA BAI, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailearen 19an taxututako irizpenak defenda ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideak babestu, errespetatu eta betetzeari buruzko honako mozio hau aurkezten dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean 2025eko urtarrilaren 26a baino lehen izapidetu dadin.

Zioen azalpena

2025eko urtarrilaren 26an urtebete beteko da Hagako Nazioarteko Auzitegiak irizpena eman zue-
netik Israelek Gazako Zerrendan nazioarteko

zuzenbidea, giza eskubideak nahiz nazioarteko zuzenbide humanitarioa behin eta berriro urratzen duela-eta Hegoafrikak jarri zuen demandari dago-kionez.

Goi Auzitegiaren irizpenaren arabera, litekeena zen Israelek genozidioaren krimen gaitzesgarria egin izana, eta agintzen zion berehala har zitzan neurriak, bere armadak Genozidioari buruzko Konbentzioa urratzen ez duela bermatzeko.

Auzitegiak orobat eskatu zuen Israelek baimendu zezan laguntza humanitarioa sartzea, eta Nazioarteko Auzitegiako lehendakari Joan Donoghue epaileak behin-behineko zenbait neurri ezarri zituen, "Gazako Zerrendako egoera humanitario katastrofikoak arrisku handia duelako okerrera egiteko auzitegiak bere azken epaia eman aitzin". Israelek agindu horren ezarpenari buruzko txosten bat aurkeztu behar zion hilabeteko epean Nazioarteko Auzitegiari. Baina Israelek ez zuen exijitutako neurri horietarik bakar bat ere bete.

Aitzitik, Israelek Gazako Zerrenda osorik, modu sistematikoa eta basatian, suntsitzen jarraitu du, lizentzia gehiago eman du koloniak eraikitzeke (giza kokagune ilegalak, nazioarteko zuzenbidearen arabera), erasoaldiak egin ditu Zisjordaniako herri eta hirietan (zibilak erail eta azpiegiturak suntsituta), laguntza humanitarioa Gazara sar dadila eragozten jarraitzen du eta gosea gerra-arma gisa baliatzen du. Ofizialki, Israelek 47.000 pertsona baino gehiago erail ditu 2024ko abenduaren 17ra arte, nahiz eta Mendebaldeko herrialdeetako osasun publikoko adituek uste duten kopuru hori 200.000tik gorakoa izan daitekeela (% 70, neska-mutikoak eta emakumeak) Israel Gazako Zerrendaren iparraldean egiten ari den eraso indiskrimi-

natua bukatzen denean, zibilak beren etxeetan, eskoletan eta ospitaleetan erasotzen ditu-eta.

Israelek nazioarteko zuzenbidea urratzen duen testuinguru honetan, baina baita Mendebaldeko gobernuak legedi indarduna betearazte aldera erakusten duten pasibotasuna ikusita ere, eta arriskua dagoenez –hurbil baino hurbilago egon ere– gure bizitzak nahiz herrialdeen arteko nazioarteko harremanak gidatu dituen sistema juridikoaren balioa zeharo gal dadin, behean sinatzen dugun talde parlamentariook gure egiten dugu Yala Nafarroa con Palestina elkartearen errebindikazioa, eta Nafarroako Gobernuari ausardia eskatzen diogu nazioarteko zuzenbidearen defentsan, kinka larrian baitago; zehazki, Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu:

1.- Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek emandako irizpenak aldeztu ditzan, bai 2024ko urtarrilaren 26koa, zein角度an ondorioztatzen baita litekeena dela Israel genozidioa egiten egotea, bai 2024ko uztailearen

19koa, zeinean ondorioztatzen baita Israel apartheid-krimenaren erantzulea dela.

2.- Nazio Batuen ebazpenak betetzeko konpromisoa berrets dezan eta ebazpen horiek betetzeko behar diren urratsak eman ditzan.

3.- Arrakalarik gabeko babesa eman diezaien Nazio Batuen Erakundeari eta haren agentziei –bereziki UNRWari–, urteak eta urteak baitaramatzate Israelek darabilen okupazio ilegala salatzen.

4.- Espainiako Gobernuak premia dezan nazioarteko legedi indarduna betetzeko eta betearazteko betebeharraren arabera jardutera, berehalako sueten iraunkorra exiji diezaien gatazkaren parte direnei eta Hagako Nazioarteko Auzitegiaren exigentziak eta Nazio Batuen ebazpenak bete ditzan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentariak: Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio, María Olga Chueca Chueca, Irati Jiménez Aragón eta Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00143. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duen estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba

MOZIOA ERRETIRATZEA

2025eko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gober-

nuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duen estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba. Mozioa 2024ko azaroaren 15eko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias